

INFO

2025eko urtarrila

Sukaldari eta Garbitzaileak



www.irakaskuntza.lab.eus
z.laboralakaraba@lab.eus
z.laboralakbizkaia@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus
s.ingunza@lab.eus

Lan hitzarmena negoziatzeko lehenengo mahai negoziatzailea izan dugu 60 urtetik gorakoen protokoloa aztergai izan dugu mahai parekidean

Dakizuen bezala lan hitzarmenaren zirriborro osoa bidali ziguten abenduaren 9an. LABetik gure ustez gai garrantzitsuenak direnen inguruan ekarpenak egin genituen, besteak beste: **urteko eta eguneko lanaldi jaitsierari** dagozkionak, **kontratazioaren** ingurukoak, **gutxieneko jardunak** erdikoak izatea, **ikasturteko lan egunak lan egutegian** kokatzearen garrantzia, **soldata eta kategoriei buruzko hausnarketa**, **ordezkoen araudia negoziatzeko eta hitzarmenean txertatzeko** beharra, **privatizazioarekin bukatzeko neurriak** hartzearen beharra, **lan osasuna** babesteko neurriak, **adinagatiko murrizketa**, **formakuntza eta euskara planak** negoziatzea, **sukalde eta garbiketako ratioak** jaisteko beharra eta **lanpostuen funtzioak eta monografiak** zehaztearen premia.

- **Lanaldia:** gaur egun 1580 ordu ditugu sukaldean eta 1592 garbiketean. Hauei erantzunez zirriborroan 1520 jarri zituzten eta gaur 1472 proposatu dituzte. Sukaldeetan urteko 190 egunetan 7,45 orduko lanaldiarekin eta garbiketean urteko 195 egunetan 7,30 orduko lanaldiarekin (irailetik ekainera) eta geratzen diren orduak uztailean banatuko dira, adostuko den moduan.
- **Soldatak eta kategoriak:** Eusko Jaurlaritzako langileekin parekatzeko proposamena ekarriko digute, antzeko titulazio eta figurak aintzat hartuz.
- **Ordezkoen araudia:** ekarpenak egiteko eskatu digute.
- **Ratioak:** ez dute ratioen jaitsierarik proposatzen.
- **Formakuntza funtsean** dirua soberan geratuko balitz gizarte funtsera pasatzea proposatzen dute.
- **Adinagatiko lanaldi murrizketa:** 60 urtetik gorako murrizketaren inguruan, atsedenaldea 45 minutura pasatzea proposatzen dute, lanaldiaren bukaeran hartuta etxera joateko aukerarekin. 63 urtetik aurrera hereneko murrizketa.

Gauzak horrela, lan hitzarmena negoziatzeko LABetik proposatutako metodologia aurrera eramango da, zehaztutako egutegian LABek bidalitako ekarpenetan zehaztu zituen gaiak landuz.



Ikusten duzuen moduan asko dago negoziatzeko eta egin dizkiguten proposamenak oso eskasak dira, beraz, borrokan jarraituko dugu mahaietan eta kalean.

LAB, ELA eta CCOO-k Urtarrilaren 30-31ean eta otsailaren 19-20an deituta ditugun grebek berebiziko garrantzia dute lan hitzarmena aurrera ateratzeko.

Greba zikloko materiala (kartelak, eskuorriak, pankarta ereduak...) deskargatzeko klikatu [HEMEN](#)

Meritu bidezko LEPa

Lanpostuak aukeratzeko aplikazioa egiten ari dira, aurreikusten dute lanpostuak eskatzeko epea urtarrilaren 20-24ko astean irekiko da.

Nahi adina lanpostu hurrenkeran aukera behar dira. Ez da ofizioz esleituko aukeratu ez dena.

Bestalde, mahaietan jardun murriztuan plazarik eskainiko ez dela esan zuten arren, hamaika lanpostu %75ean eskaini direla salatu dugu. Lanpostuen zerrendan horrela daudelako atera dituztela esan digute.

Finkoen Lekualdatze lehiaketa

Gogoratu lanpostuen aukeraketa egiteko epea urtarrilaren 22an bukatuko dela.

Informazio guztia: [HEMEN](#)

Mahai parekidea

60 urte baino gehiago duten langileen osasuna zaintzeko protokoloa aurrera eramateko proposamen desberdinak egin ditugu gaurkoan, hereneko murrizketak metatu eta ordezkatuak izatea exijitu dugu.

Animatu nahi zaituztegu eskaera egitera eta osasun azterketa egin duzuenoi eta hilabete pasa bada murrizketa hartzeko protokoloan zehaztuta dagoen bezala. [LOTURA](#)

Edozein zalantza izatekotan jarri gurekin harremanetan.



BAGARA *zurekin* **BAGARA** *Un sindicalismo diferente*





Hemos tenido la primera mesa de negociación del convenio colectivo

Se ha tratado el protocolo de vigilancia de la salud del personal mayor de 60 años en la mesa paritaria

- www.irakaskuntza.lab.eus
- z.laboralakaraba@lab.eus
- z.laboralakbizkaia@lab.eus
- z.laboralakgipuzkoa@lab.eus
- z.laboralakgipuzkoa1@lab.eus
- s.ingunza@lab.eus

Como sabéis, el 9 de diciembre nos enviaron el borrador del convenio. Desde LAB realizamos aportaciones sobre los temas que consideramos más importantes, entre otros:

La **reducción de la jornada** anual y diaria, la **contratación** tiene que ser de media jornada mínimo, la importancia de **situar los días de trabajo del curso en el calendario laboral**, la reflexión **sobre salarios y categorías**, la necesidad de **negociar la normativa del personal de sustituciones** e incorporarla al convenio, la adopción de medidas para **acabar con la privatización**, las medidas de protección de la **salud laboral**, la **reducción por edad**, la necesidad de **negociar planes de formación y euskaldunización**, la necesidad de **bajar ratios de cocina y limpieza**, y la necesidad de **definir las funciones y monografías de los puestos de trabajo**.

- **Jornada laboral:** En respuesta a las aportaciones que hemos realizado de las 1580 horas anuales que tenemos en cocina y 1592 horas en limpieza, en el borrador propusieron 1520 horas y hoy nos han propuesto 1472. En cocina 190 días al año con jornada diaria de 7,45 horas y en limpieza 195 días, con jornada diaria de 7,30 horas de septiembre a junio. Las horas que resten se distribuirán en julio, según se acuerde.
- **Salario y categorías:** nos traerán una propuesta de equiparación salarial y de categorías con el personal de del Gobierno Vasco, teniendo en cuenta titulaciones y categorías similares.
- **Normativa de sustituciones:** nos piden que hagamos aportaciones a la normativa de sustituciones.
- **Ratios:** no proponen una bajada de ratios
- **Fondo Social:** proponen que si sobrara dinero en el Fondo de Formación, pase al Fondo Social.
- **Reducción de jornada:** en cuanto a la reducción de jornada del personal mayor de 60 años, proponen pasar el tiempo de descanso a 45 minutos, con la posibilidad de irse a casa si es al final de la jornada y reducción de un tercio a partir de 63 años.

Así las cosas, se llevará a cabo la metodología propuesta por LAB para la negociación del Convenio, en las fechas ya definidas, tratando los temas que enviamos en las aportaciones.

Como veis hay mucho que negociar y las propuestas que nos han hecho son muy escasas, así que seguiremos luchando en las mesas y en la calle.

Las huelgas convocadas por LAB, ELA y CCOO los días 30-31 de enero, y 19-20 de febrero son de vital importancia para sacar adelante el convenio laboral.

Para descargar todo el material del ciclo de huelga (carteles, folletos, pancartas...) pincha [AQUÍ](#)

OPE por méritos

Se está desarrollando la aplicación para la selección de los puestos de trabajo, y preveen que el plazo de selección se abrirá en la semana del 20-24 de enero.

Habrà que ordenar las plazas por orden de preferencia. No se asignará de oficio lo no seleccionado.

Por otro lado, hemos denunciado que se han ofertado al 75% once plazas, cuando dijeron que no se iban a ofertar plazas de jornada reducida. Dicen que las han sacado porque están así en la RPT.

Concurso de Traslados del personal fijo

Recuerda que el plazo para realizar la selección de puestos de trabajo finalizará el 22 de enero. [ENLACE](#)

Mesa paritaria

Hoy hemos hecho diferentes propuestas para llevar a cabo el protocolo de vigilancia de la salud de las trabajadoras/as mayores de 60 años, hemos exigido que las reducciones de un tercio sean acumuladas y sustituidas.

Os animamos a que hagáis la solicitud [AQUÍ](#) y si ha pasado un mes del reconocimiento médico tal y como está definido en el protocolo, os cojáis la reducción.

Ante cualquier duda poneros en contacto con nosotras.

-